

# noaua



**Udazkeneko Azoka,  
iruditan**

**Hasieraz onartu dira  
2022ko udal  
aurrekontuak**

**“Hikastea” azken  
txanpan sartu da**



**Aztarrika Gazte Asanblada:  
“Gure proiektuak aurrera  
eramateko espazio bat  
behar dugu”**

**6. or.**

**KAFE GARAIA**

Patxi Suarez (PSE), Josune  
Urkola (EAJ) eta Agurtzane  
Solaberrieta (EH Bildu)  
udal ordezkariekin batu gara.

# TXAPELDUN

JATETXEA

EGUNEKO MENUA  
ASTE BURUKO MENUA  
PINTXOAK  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK-RAZIOAK  
HANBURGESA BEREZIAK

Zatoz gure platerak  
dastatzera!

eramateko erel

943 21 34 03  638 16 54 67

MUNA LURRA 2, USURBIL



ganbonetako apaingarri eta  
dekorazioan aukera zabala!



**URTINEA**

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

# ARATZ

zabaleta anaiak

1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak  
Igara Bidea, 15, Donostia erreserbak: 943 21 92 04

## Albisteak iruditan

## Uholde txikiak, asteburuko euri-jasen eraginez



Igande goizaldean alerta maila laranja heldu zen erria baina ordu gutxiren bueltan ur-emia jaisten joan zen. Iruditan, Zubietan eta Txokoaldeko erriberak.

Asteburuko euri-jasek uholde arriskua eragin bazuten ere, azkenean ohiko zonaldeetan baino ez zen atera erria bere

ohiko ertzetatik; Zubietan Aliri zubitik gertu, edota Santuenea, Txokoalde zein Aginaga inguruko erriberetan. Igande

goizaldean alerta maila laranja heldu zen erria baina ordu gutxiren bueltan ur-emia jaisten joan zen.

## Laburrean

## 44 Covid-19 kasu azken astean

44 kasu zenbatu zituen Osasun Sailak iragan aste osoan. 1.299,94an zen 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia aste hasieran.

## Odol emaileen eguneko bazkaririk ez

Usurbilgo Odol Emaileen Eguna izan ohi da abenduaren 8a. Covid-19ak eragindako osasun krisialdia tarteko, bigarren urtez bertan behera uztea erabaki dute.

## Datorren astean ez da NOAUA!rik izango

Jai egunak tarteko, datorren astean ez da NOAUA!rik argitara emango. Hurrengo aldizkaria abenduaren 17an argitaratuko dugu.

# noaua

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



Luis Aranalde

**F**rantzes Estatu Kontseiluko ohorezko presidentordea da Jean Marc Sauv . Frantziako Gotzainen Batzarrak lan hau eman zion: ikertu zezala Frantziako Eliza katolikoan izan diren abusu sexualen errealitatea. Helburu hirukoitza zuen betebeharrak: gertatutakoa jakitea, konprenitzen laguntzea eta delitu hauen errepikapena prebenitzea. Emaizak guztiz suntsituta uzten zaitu; zifrak eskandalagarriak dira.

Azken 70 urteotan, 330.000 haurrez abusatuta 3.000 bat elizgizonek eta beren laguntzaileek. Elizgizonek sistematikoki abusatzen zuten haurrez Sauv k dioenez. Eta hamarkadetan zehar elizak ezkutatuta egin zituen eta utzi krimen zital hauek gerta zitezen.

Fran ois Deveaux erlijioso eraso hauen biktime-tako bat izan zen eta "la parole lib r e" (hitza liberatua) biktimen elkarte sortu zuen. Txostenaren aurkezpenaren honako hau esan zien Frantziako elizaren arduradunei: "gizadiaren lotsabide zarete zuek. Infernu honetan krimen nazkagarri pilo bat izan da, baina grabeena hau: haurrak traizionatzea". Aitortu zuen horrelako informe serio

## Sauv  txostena



"Frantziako elizgizonek sistematikoki abusatzen zuten haurrez, Jean Marc Sauv k dioenez".

### LUIS ARANALDE

**"Frantziako elizaren jokabidea eta Espainiako Gotzainen Batzarrarena guztiz ezberdinak izan dira; Espainiakoak ez du seriozki aztertu nahi gai hau"**

bat aurkeztea lehen aldiz gertatzen dela eliza unibertsalean eta arazoa bere osotasunean aztertuta izan dela. Baina bukatu zuen esanez: "oker ibili den erakundeak guztizko errefor-ma behar du".

Frantziako lautik hiruk ez du jada konfiantzarik elizarengan, ez baititu haurrak babesten. Elizak barkamena eskatu du, baina sozietatea haratago doa bere eskakizunetan eta erakundearen erreforma exijitzen du

sexu moralean eta emakumeen parte hartze arloan; lege Kanonikoa berrikusi egin behar da, izan diren biktimen kopurua aitortu eta kalteak konpentsatu.

Frantziako elizaren jokabidea eta Espainiako Gotzainen Batzarrarena guztiz ezberdinak izan dira; Espainiakoak ez du seriozki aztertu nahi gai hau. Ez hori bakarrik: ukatu egiten du Elizak erakunde bezala jarra-n negargarria izan duenik arazo honetan. Bukatu berria dute gotzainek beren batzar nagusia eta Luis Arg ello idazkaria eta bozeramaileak esan du pedera-stia kasu horiek "txikiak" izan direla eta "gutxi batzuk". Abusatua izan zen horietako batek, Fernando Garc a-Salmon sek hain zuzen, erantzun dio: "lotsagarria da esatea "kasu gutxi batzuk" izan direla eta "txikiak", desegin eta hautsi

den haurtzaro bakoitza baskeria bat ez balitz bezala. Eta zeintzuk egin dute hori? Egutero Jesusen hitzak hots egiten dituzten batzuek, beren buruak etikaren eredu-tzat dauzkatenek". Ikerketarik ez da egingo, artxiboak ez dira irekiko, biktimen indennizazioak ez da hitz egiten ere.

Txikiez abusatzea anker-keria izugarria baldin bada beti, batez ere larria da abusatzailea erlijioso bat de-nean, horrek plus bat erans-ten dio makurkeria horri.

Abusu hauen aurrean Frantziako Elizak dio erant-zule izango dela eta erakun-de bezala gainera. Erantzukizun honek darama berekin justiziaz jokatzeko eta abusa-tuak indennizatzea. Gotzain guztiek aitortu dute krimen hauek gertatu direla Elizak epel jokatu duelako eta as-ktan beroien babesle izan delako. Ebanjelioan datorren esaldi agian bortitzenare-kin amaituko dut. Haurren defendatzaile sutsua izan zen Jesus umea aintzat har-tzen ez zen garaian. Honela dio haurra eskandalizatzen duenaz: "dohakabea txiki hauetakoren bat galbidean jartzen duena; hobe luke errotari bat lepotik erantsi eta itsas ondora amilduko balute". (Mt. 6)

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
Patriarka jatetxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, ostegunetik larunbatara

© 943 362725 · © 688 690 361

## Ika-mika

## Anerrekaren ekarpenak 2022ko udal aurrekontuari

Urtean zehar antolatu ditugu hainbat hitzaldi eta bestelako ekimen. Horietan jorrratu dira, besteren artean: bertako basoa sustatzea, Aranerrekako kutsadura eta energia berriztagarrien proiektuak autokontsumorako. Gai hauekin zerikusia daukaten ekarpenak egiteko baliatu dugu udalak egin berri duen 2022ko aurrekontu-proiektuaren aurkezpen saioetako bat.

1.- Usurbilgo udalak apenas dauka lurrik bertako basoaren. 2014ean egindako azterlan batean agertzen denez, udalak ingurune ez urbanizagarrian bere jabetzan dauzkan lur eremu guztiek, 30 Ha baino gu-

txiago osatzen dute. Orotara 50 partzela dira. Horietako batzuen jabetza bera ere, zalan-tzan jartzen da txosten horretan. Oso partzela txikiak dira, eta batzuetan, intsinis pinua da nagusi. Lurrak erosi, bertako zuhaitz espezieak landatu eta ondare publiko bihurtzeko bidea egiten ari dira hainbat eta hainbat herri. Usurbilen ere bide horri ekiteko eskaria egin diogu udalari, datorren urteko aurrekontuan diru-partida bat ezarri.

2.- Aranerrekak bere urak ibairatzen dituen gunean, Zumartegiko tren zubiaren ondoan dagoen jauzia, gainditu ezinezko oztopoa da errekarasartu nahi duen ibaiko fauna-

rentzat. Oztopo hori kentzeko lanentzako aurreikuspena egiteko ere eskatu genuen.

3.- Usurbilgo udalerrian dauden erreken katalogo bat sortzeko azterlan baterako beka-deialdi bat egiteko proposamena ere luzatu genuen. Herri ondarea osatzen duten erreka asko daude gure udalerrian. Horien zaintza egiteak biodibertsitatearentzat onura dakar, eta horretarako lehen urratsa, daukaguna ezagutzea eta behar diren azterlanak ondo dokumentatzea da. Kasu, Arkaitzerrekakoa berriro ez gertatzeko azterlan hau lagungarria izango litzateke.

4.- Jendartean bada kezka autokontsumorako energia-ko-

munitateak sortzeko dauden aukerei buruz. Badira herriak inguruan, bide hau jorrratzen hasita daudenak. Komunitate hauek sortzeko, erraztatzaile lana egiteko bidelagun izan beharko luke udalak. Legediak eskaintzen dituen aukerataz informatu, dauden diru-laguntza eskariak bideratzen lagundu, azken finean, horrelako proiektuak errealitate bihurtu daitezzen, burokrazia tramiteak erraztuz. Ildo hau martxan jartzeko diru aurreikuspen bat egiteko eskatu genion baita udalari.

Hauek izan ziren gure eskari-proposamenak.

## Anerreka Ingurumen Elkarte

## Ika-mika

## Oraina guria denk!

Itxaron, lasai hartu, biziraun etapa hau ahal bezala... honakoak dira azken bolada luzean gazteok entzun behar izan ditugun mezuak, behin eta berriz. Guk ere badakigu egungo osasun egoera kezkarria dela, honen adibide da asteburu honen aurrean hartu dugun hautua, hau da, Gazte Eguna atzeratzearena.

Hala ere, pandemiaren aitazakipean gazteok bizi dugun egoera larria da, eta honakoa aldarrikatzeko bildu gara gaurkoan. Garbi dago boteredunen

eskumenak eta gizartea kontrolatzeko gaitasunak izugarri indartu direla azkenaldian, eta honekin batera sektore ahulak kriminalizatu eta isilarazteko hartu duten jarrera sekulakoa izan da. Arduragabeak, zentzugabeak eta kriminalak garelako oihukatu dute komunikabideen bitartez egunak joan eta egunak etorri. Jo puntuan egotera ohitu gara, baina egurrea jasotzeko bakarrik noski. Izan ere, haien jarduna interes ekonomikoek markaturikoa izan da, gure beharrak kanpo utziz, gutxi batzuen mesedeta-

ra, betikoak, betikoa egiten.

Bitartean, ikasketekin arazoak, lan baldintza penagarriak onartzera kondenatuak eta harremantzeko esparrurik gabe topatzen gara gazteak, geroz eta urrunago ikusiz gure bizi proiektuak gauzatzeko aukera. Hori gutxi balitz, gazteon arteko osasun mentalari loturiko datuak sekulako arazoak agerian uzten dituzte. Inoiz baino batuago egon beharko genukeen honetan, bakardera eta indibidualistak izatera bultzatu nahi gaituzte, horregatik, oraina irabazteko elkar-

tu eta lanean jarraitu beharra dugu. Egoera gordinari hortzak erakutsiko dizkion gazte belaunaldiaren beharra daukagu, gureak izango diren gune autogestionatuen beharra daukagu, burujabe izateko beharra daukagu! Horregatik, antolatzen eta borrokatzen jarraituko dugu, ez baikara etorkizunaren zain, oraina guria denk! Gora Usurbilgo gazteriya! Gora Aztarrika!

Aztarrika Usurbilgo  
Gazte Asanblada

**ZENDOIA**  
**ENE** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil



*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra



693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

## Patxi Suarez: “Harro sentitzen naiz herritarren ahots aurrerakoia, ez nazionalista, ordezkatzegatik”

**P**SE-EEK udal zinegotzi bakarra du Usurbilen: Patxi Suarez. Sevillarra jaiotzez, 2014an Euskal Herrira etorri zen eta geroztik hemen bizi da, familiarekin batera. Iritsi eta euskara ikasteari ekin zion berehala. Ederki moldatzen da. Elkarrizketa osoa halaxe egin dugu, euskara hutsean.

**NOAUA!ren 25. urteurrenaren aitzakian, “Kafe garaia” izeneko atala abiarazi dugu. Ezer baino lehen: non zeunden duela 25 urte? Zertan ari zinen?**

**Patxi Suarez, PSE-EE:** Duela 25 urte Sevillako unibertsitatean nengoan, filologia fakultatean hain zuzen. Politikari dagokionez, gogoan dut Alderdi Popularraren iritsiera Espainiako gobernura. Kolpe galanta izan zen eta halaxe bizi izan nuen.

**Zuzenean ala zeharka, pandemiak gogor kolpatu gaitu denoi. Maila pertsonalean, nola eraman duzu izurriteak ekarri duen guztia?**

Zorionez ez ninduen zuzenezuzenean kolpatu. Baina zori-



Patxi Suarez duela bi urte izendatu zuten udal zinegotzi. Usurbilen oso harrera ona egin zaiola aitortu digu.

### PATXI SUAREZ

**“Pandemia betean, Espainiako gobernuak ondo kudeatu zuen kobernantza”**

txarrez, badira familia pila bat heriotza pairatu behar izan dutenak, edo gaixotasun bera. Askok sentitzen dut hori guztia.

Lanpostuari dagokionez, Do-

nostiako hotel batean egiten dut lan eta ERTEan egon nintzen hainbat hilabetez. Lan arloan beraz, pairatu nuen.

Alaba bat ere badugu, 11 urtekoa, eta eskolak online kudeatzea oso-oso zaila izan zen guretzat. Zorionez lortu genuen dena ahalik eta ondoen egitea, eta orain normaltasunean edo normaltasun berrian daude umeak eskolan. Lanean ere egoera hobera doa eta askoz hobeto gaude orain.

**Etorkizun hurbila itzaropentsu ikusten duzu ala kosta egingo al da pandemia aurreko mar-txa berreskuratzea?**

Ni baikorra naiz. Nahiz eta puntu ahulak egon diren, uste dut Espainiako gobernuak ondo kudeatu duela kobernantza pandemia garaian. Orain Eusko Jaurlaritzak kudeatuko ditu Europatik etorriko diren diru funtsak. Eta Foru Aldundiari egokituko zaio zorrotza izatea.

## “Aitarengandik dator kit bokazio politikoa”

**NOAUA! 2019ko udal hauteskundeetan PSE-EEKo hautagai nagusia izan zinen Usurbilen. Nondik dator kit politikarako bokazioa?**

**Patxi Suarez, PSE-EE:** Nire aitarengandik dator kit bokazio politikoa. Bera ezkerrekoa zen, alderdi komunistakoa, eta ni sozialista. Txikitatik politikari buruz hitz egin izan dugu etxean. Batzuetan tirabirak izaten genituen. Nire aitona ere sozialista zen, odolean daramadan zerba it da beraz.

Sevillarra zara jaiotzez, Donostian egiten duzu lan eta zinegotzi ari zara hemen. Harrera ona egin al zaizu Usurbilen?

Oso-oso harrera ona egin zidaten hasiera-hasieratik. Gogoan dut kargua hartu berrian, jailetako sokadantzan parte hartzera gonbidatu nindutela. Oso ondo pasa genuen. Erronka handia izan zen niretzat. Bestalde, Usurbilgoa izan ez arren, oso harro sentitzen naiz herritarren ahots aurrerakoia, ez nazionalista, plenoetan ordezkatzegatik.

**“Politikari guztiak berdina dira”, maiz entzuten dugun esaera da. Zer esango zenioke hori pentsatzen duenari?**

Ez nago ados. Pandemia garaian adibidez, nik EH Bilduren gobernuarekin bat egin nuen oinarritzko gaitan. Aurreko aurrekontuetan abstenitu egin nintzen eta emendakin osoa erretiratu nuen. Nik galdera bat egin nahi nioke horrela pentsatzen duenari: politikaririk gabe, zer edukiko genuke? Oso erraza da erantzuna: diktadura.

**Duela urte batzuk, PSE-EEKo zinegotzia eskoltarekin etortzen zen Usurbilgo plenoetara. ETaren armagabetzea eman zenetik hona giroa asko hobetu da, ezta?**

Giroa erabat hobetu da. Eskertu nahi nioke nire alderdiko zinegotzietan, egoera horretan eskoltarekin plenoetara etorri behar izan zutelako. Hamar urte pasa dira armagabetzea iragarri zenetik. Nahiz eta aurretik bide luzea dugun oraindik, uste dut itzaropentsu izateko arrazoiak baditugula.

## “Erraustegia ez da kezkatzeko moduko azpiegitura, baina ulertzen dut herritarren kezka”

NOAUA! Azken urteotan, usurbildarren kezka nagusietako bat errauste-planta izan da. Oso gertu dugu eta askorentzat, kutsakorra izateaz gain, kezkatzeko modukoa da azpiegitura berria. Jada martxan den errauste-plantaren beldur bizi direnei, zer esango zenieke?

**Patxi Suarez, PSE-EE:** Beraien kezka ulertzen dut, baina errauste-plantaz hitz egitean, balio energetikoak dituen plantari buruz ari naiz ni, elektризitatea sortzen duenaz. Hon-dakinak zabortegei handietara ez botatzeko alternatiba da. Europan halako 500 daude gutxi gorabehera. Batzuk 40 urtez ari dira lanean. Eta horietako batzuk hiriburu nagusien barruan daude, Oslon edo Parisen adibidez. Nik uste dut ez direla ingurumen sentzibilitate gutxikoak. Kezka ulertzen dut eta partzuergoak ingurumen neurri berriak jarri ditu; gai hauek tratatzeko azken teknologiak. Bai Eusko Jaurlaritzak, bai partzuergoak kabinak jarri zituzten planta ireki baino urte eta erdi lehenago, eta informa-



“Europan halako 500 erraustegi daude lanean. Batzuk hiriburu barruan, Oslon edota Parisen”.

**PATXI SUAREZ**

**“Uste dut Alderdi Popularrak ardura handia duela VOXek izan duen gorakadan”**

zioa jasotzen dut partzuergotik. Orain arte ez da aldaketarik izan. Nik uste dut ez dela kezkatzekoa, baina ulertzen dut kezka. Hau guztia esanda,

lasaitasun mezu bat bidali nahiko nioke herriari.

**Ultraeskuina asko igo da Espainian eta Europan. VOX bezalako alderdien gorakadak kezkatu egiten al zaitu?**

Bai. Kezkatzen nau pentsatzeak noizbait boterera iritsi daitezkeela. Uste dut Alderdi Popularrak ardura handia duela VOXek izan duen gorakadan. Eskuinekoa izan daiteke

bat, noski baietz, baina ezin dugu demokraziaren kontra egin. Alderdi Popularrak beste alderdiekin batera isolatu behar du ultraeskuina, eta oso argi kondematu behar dituzte matxismoa eta frankismoa. Oraindik ez dute hori egin. Nik Alemaniari begiratzen diot inbidia pixka batekin. Han benetan kondemnatzen dute ultraeskuina, eta horrek inbidia ematen dit.

## “PSE-EEen gero eta gehiago hitz egiten da euskaraz”

NOAUA! Euskaraz egiten ari gara elkarrizketa hau. Sevil-larra zara jaiotzez, hortaz, gerora ikasiko zenuen euskara. Esaten den bezain zaila al da?

**Patxi Suarez, PSE-EE:** Bai, zaila da. Nik maite dut euskara. Egia esan, hizkuntza guztiak maite ditut, eta horregatik ikasi nuen filologia. Hizkuntzak maite ditugunontzako oso erronka handia da euskara ikastea. Ingelesa, frantsesa, italiara eta euskara ikasi ditut. Duela zortzi urte

hasi nintzen euskara ikasten. 2014an, hemen finkatzea erabaki genuenean. Nik nire aldetik erabaki nuen euskara ikastea, betidanik euskara ikasi nahi izan dudalako.

**Aurreko legealdian ere, PSE-EEko zinegotziak euskaraz hitz egiten zuen. Alderdi sozialistaren barruan gero eta gehiago hitz egiten al da?**

Bai. Jende gazteagoa hurbildu da alderdira eta gero eta gehiago hitz egiten da euskaraz. Ikastoletatik ateratzen dira asko eta

asko, jada euskaraz hitz egiten. Eta hori oso positiboa dela iruditzen zait.

**Udaletxean eman dituzun bi urteotan, NOAUA!k egiten duen lana ezagutzeko aukera izan duzu. Ze itxura hartzen diozu aldizkariari eta kultur elkarteari berari?**

Uste dut NOAUA! oso lan ona egiten ari dela. Begi-bistakoa da, jai guztietan bertan izaten da NOAUA!. Euskara bultzatzeko lana ere begi-bistakoa da. Gehiengoak euskaraz hitz

egin nahi du, eta hori onartzekoa eta errespetatzekoa da.

Erronka nagusia litzateke Euskal Herrian bai euskaraz eta bai gazteleraz hitz egitea; baina ez dut uste hori zuen eginkizuna izan behar duenik. Kontua da zein motibazio eman diezaiokgun euskaraz hitz egiten ez duenari euskara ikas dezan. Motibazio hori zein modutan garatu beharko litzatekeen aztertu beharko zen. Euskarari dagokionez, uste dut hori dela erronka nagusia.

# Josune Urkola: “Usurbilen EAJko zinegotzia izatea ez da erraza. Hori horrela da”

**P**aperik gabeko elkarrizketak dira naturalenak. Josune Urkolak hainbat ekarri zituen baina ez zuen apunteetan erreparatu. Solasaldia zintzoa bezain atsegina izan zen. Pasarte batzuk batu ditugu orriotan.

**NOAUAren 25. urteurrenaren aitzakian, “Kafe garaia” izeneko atala abiarazi dugu. Ezer baino lehen: non zeunden dela 25 urte? Zertan ari zinen?**

**Josune Urkola, EAJ:** Usurbilera etorri berria nintzen. 1993an iritsi nintzen hona baina Donostian egiten nuen lan. Etxetik lanera eta lanetik etxera ibiltzen nintzen garai hartan. Oso gutxi egoten nintzen Usurbilen eta lagun batzuk ezagutzen nituen, baina oso jende gutxi. Orain dela 25 urte izan genuen lehenengo semea eta horren aitzakian hasi nintzen Usurbilen gehiago azaltzen. Haurrak izan ohi dira horretarako aitzakia.

**Etxean, maila pertsonalean, nola eraman duzu pandemiak ekarri duen guztia?**

Esango genuke ondo eraman



Zinegotzia izateaz gain, eraikuntza enpresa batean egin du lan. “Momentu honetan lan asko daukagu”, azaldu digu.

## JOSUNE URKOLA

**Covid-19arekin kutsatuzen udan partean. “Dena den, ez gara kexatuko. Nahikoa arin pasa dugu”**

dugula. Luzea izan da, eta oraindik ere hala da. Gainera, azken egunotako albisteak ez dira oso onak, agerraldi

batzuk eman direlako, baina orokorrean guk ondo eraman dugu. Okerren azken uda honetan pasa dugu, abuztutik hona bitartean. Kontua da abuztuan familiarekin oporretan izan ginela eta iloba txiki batek positibo eman zuela. Eta txandaka-txandaka, gainontzeko guztiok eman genuela. Ni barne. Eta pentsa, txertatuta nengoen, bi dosiak hartuta. Eta hala ere, positibo eman nuen.

PCR bakarra egin nuen urte eta erdian, eta udatik hona bat bestearen atzetik egin behar izan dut. Dena den, ez gara kexatuko. Nahikoa arin pasa dugu. Behin txertatuta, esaten dute kutsatuz gero arinago eramaten dela gaixoaldia. Hori da diotena eta senarra eta biak txertatuta geundenez, oso arin pairatu dugu. Beste batzuk ordea, ez dute horrela kontatzeko modurik izan. Gogorra izaten ari da.

## “Pandemiaren aurreko martxan ari gara lanean”

**NOAUA! Zinegotzia izateaz gain, Zumitza Eraikuntzak enpresan egiten duzu lan. Pandemiak zein neurritan baldintzatu du zuen jarduna?**

**Josune Urkola, EAJ:** Hasieran denok bezala, urduri, ez genekielako nola bideratuko zen, zer egin beharko ote genuen.

Gu geldigeldi egon garen tarte bakarra izan da pandemia hasierako garaia, iazko martxoa eta apirila. Hor eten egin zen jarduera. Etxean urduritasun puntu batekin egon ginen, baina zorionez,

gure lan asko aire librean egiten dira. Eta horrek lagundu digu baldintza berrietara errazago egokitzen: distantziak mantentzea, protokolo berriak martxan jartzea... Distantziak mantentzearena ez da erraza izan, gure lana ez delako beti banakakoa izaten. Talde murriztuagoetan aritu gara eta horrela bai, pixkanaka-pixkanaka joan gara egokitzen.

**Zuen sektorean, eraikuntza arloan, itzaropentsu ikusten al duzue etorkizun hurbila?**

2008-2009ko krisialdia oraingoa baino gogorragoa izan zela esango nuke. Orain bizitzen ari garen pandemia hau osasun krisi bat izan da eta horrek eragina izan du munduko beste izkin guztietan. Baina gure sektorearentzat 2008-2009koa okerragoa izan zen. Eta errekeratuta geundela iritsi zai-gu pandemia.

Dena den, gu jada pandemiaren aurreko martxan ari gara lanean. Horretaz konturatzen gara aurrekontuekin; jasotzen dugun eskari kopuruarekin.

Gero beste kontu bat da aurrekontu horietatik zenbat diren bideratzen direnak.

Momentu honetan behintzat, lan asko daukagu eta mota ezberdineko enkarguak gainera. Krisialdi garaian gehienbat eraberritze-lanak egiten aritu ginen, eta orain berriro hasi dira mugitzen obra berriak. Tarte zabal batean, azken bost-zortzi urteotan, ia-ia ez da obra berririk egin. Zaharberritzeak bai. Orain berriro hasi dira obra berriak egiteko eskaerak iristen.



# “Kultura demokratikoan, askok lanketa berezi bat egin beharra daukate herri honetan”

**NOAUA! Gatazka armatuak asko ozpindu zituen alderdien arteko harremanak. ETaren armagabetea eman zenetik hona giroa aldatu egin dela dirudi, ezta?**

**Josune Urkola, EAJ:** Armagabetearen ondorengoa naiz ni. Azken bi legealditan egon naiz zinegotzi modura eta aurrekoetik erdia bakarrik osatu nuen. Beraz, aurreko garaia ez nuen ezagutu. Entzunda bai, baina ez nuen gertutik ezagutu. Dena den, esango nuke giroa aldatu egin dela zerbait.

Gaur egun, modu askotako eztabaidak izaten ditugu udal txetan. Batzuk gordinak ere bai. Hortik haratago, esan behar dut Usurbilen EAJko zinegotzia izatea ez dela erraza. Hori horrela da. Gaur, oraindik ere, irainak eta pintadak jasaten ditugu EAJko zinegotziok.

## Zuen egoitzan.

Eta ez gure egoitzan bakarrik, baizik eta eraikin publikoetako hormetan ere bai. Eta esan behar dut Udalak hori ezabatzeke ez duela ezer egin. Plenoan eskatu izan dugu eta eran-



Josune Urkola EAJko zerrendaburua izan da azken bi legealditan.

## JOSUNE URKOLA

**Garaiak aldatu badira ere, “EAJko zinegotziok irainak eta pintadak jasaten ditugu oraindik”**

tzuna izan da gure egoitzan egindakoak eraikin pribatuan eginkoak direla eta horretan ez direla sartuko, baina publikoetan egindako pintadak ez dituzte ezabatu. Iruditzen zait onartezina dela oraindik orain horrela ibili behar izatea.

## Udalak zerbait gehiago egin dezakeela uste al duzu?

Bai, uste dut kultura demokratikoan, askok lanketa berezi

bat egin beharra daukatela herri honetan.

**Hain zuzen, ‘Kultura politikoa, bizikidetzeta eta giza eskubideen arloa’ garatzeko proposamena egina duzue Udal txetan. Antzeko planak garatu dituzte eskualdeko hainbat herritan, ezta?**

Usurbilen izan ezik, Buruntzaldeko herri guztietan egin dute halakorik. Eta Gipuzkoako beste hainbat herritan ere bai. Beraz, hortik doa guk egiten dugun eskaera. Gure helburua izango litzateke bakea modu behin betikoan eta modu atzerazinean finkatzen laguntzea. Horretarako egingo genukeena

litzateke udal ordezkariekin eta herri mailako ordezkariekin lantalde batzuk sortzea. Beti ere, aditu talde baten laguntzarekin. Lanketa bat egingo litzateke, baina baldintza ezinbestekoa izan beharko luke udalean ordezkartuta gauden alderdi guztion adostasuna. Ez luke balioko gehiengoz onartzea, baizik eta izan beharko luke aho batez eta denak ados egonik.

Hori lortuko balitz, gure proposamenak bost ardatz izango litzuke: giza eskubideak guztientzat, salbuespenik gabeko konpromisoa biktimekin, elkarriketan oinarritutako memoria partekatu bat, kultura demokratikoan sakondu eta azkenik, gizarteratzea sustatu. Presoak ateratzen direnean, esate baterako, zein modutan gizarteratu nahi ditugun zehaztea. Modu gizatiar batean beharko luke izan.

Gure iragan hurbilean gertatutako horri buruzko hausnarketa bat egitea. Hori proposatzen dugu eta uste dugu beharrezkoa dela.

# “Ikuspegi zabalago bat botatzen dut faltan”

**NOAUA! Euskararen normalizazioan eragiteko sortu zen NOAUA! Kultur Elkartea. Hedabide gisa, paperean eta sarean ari gara. Elkarte bezala, kultura arloan eta aisialdian. Zure ustez, NOAUA!k zer du faltan eta zer du soberan?**

**Josune Urkola, EAJ:** Helburua oso ona da. Euskararen normalizaziorako sortutako aldizkari bat da eta, egia esan, alde horretatik uste dut sekulako lana egiten duzuela. Zoritxarrez ez dauzkagu hainbeste hedabide euskara hutsean funtzionatzen dutenak, eta alde horretatik sekulako

lana egiten duzue.

Zer botako nukere faltan? Agian, ikuspegi zabalago bat. Egia da Usurbilgo aldizkaria dela eta gehienbat Usurbilgo informazioa jaso beharko genukeela. Eta NOAUA!ri esker, gauza asko jakiten ditugu. Nik eskualdeko informazio gehiago eskertuko nuke. Leihorik botatzen dut faltan. Eta soberan? Ez dakit. Sarean eta paperean dago NOAUA!, baina orain dela hogeitabost urte paper hutsean bakarrik. Gaur egun, irakurlea paperera engatzea gero eta zailagoa dela uste dut, eta ez dut esango so-

beran dagoenik. Orain astekaria da baina oker ez banago, hasieran hamaboskaria zen, ezta? Nire galdera da: Ez ote zaizkigu NOAUA!ko aldizkariak pilatzen buzoietan? Alor horretan uste dut badagoela zer pentsatua, baina esango nuke adin kontua ere badela. Sarean egiten duzuen lana ordea, etengabekoa da. Eta belaunaldi berriak mugikorrean bizi dira.

Eskatzen hasita, agian politika gutxixeago, eta kultura zein aisia gehiago eskatuko nuke. Eta konfiantza giro batean gaudenez, esango dizut azken urte hauetan gai bakarra eduki dugula.

## Erraustegiarena?

Bai, eta horrek guri sekulako egurra eman digu.

## Hain gertu egonda, jendeak kezka hori du.

Ulertzekoa da.

## Erraustegia beste herri batean balego, akaso ez luke halako kezkarik izango.

Bai, ulertzekoa ere bada.

Eta bukatzeko, zorio-nak 25 urte hauengatik, eta NOAUA!ren bitartez usurbildarrei emandako zerbitzuen-gatik. Eta ni pozik, parte izateagatik.

# Agurtzane Solaberrieta: “Gizarte larrialdietarako udal laguntzak jarriko ditugu martxan 2022an”

Legealdi osorako plangintza aurkeztu eta gutxira lehertu zen pandemia. EH Bilduren proposamenak 130 egitasmo biltzen zituen. “Pandemiak, bistan da, hankaz gora jarri zuen dena”. Hasierako planak berregokitu behar izan dituzte, helburu argi batekin: inor ez dadila atzean geratu.

**NOAUA! 2019an, alkatetzara iritsi eta gutxira, legealdi osorako programa aurkeztu zenuen. Pandemiaren erruz ordea, dena berregokitu behar izan zenuen, ezta?**

**Agurtzane Solaberrieta, EH Bildu:** Legealdiko plan orokorrean herri ikuskera bat jasotzen zen. Guztira 130 egitasmo biltzen zituen gure planak. Pandemiak, bistan da, dena hankaz gora jarri zuen. 2020ko aurrekontuak, 2021ekoak zein datozenak, Covid-19ak eragindako testuinguru ekonomiko eta sozial horretan osatu behar izan ditugu. Hasiera-hasieratik gure begirada beti egon da herritar eta kolektibo zaurgarrienengan. Haiei zuzendutako hamaika ekimen jarri ditugu martxan, izan diru



Covid-19ak eragindako testuinguru ekonomiko eta sozialera “egokitu behar izan ditugu 2022ko udal aurrekontuak”.

## AGURTZANE SOLABERRIETA

**“Gure begirada beti egon da herritar eta kolektibo zaurgarrienengan”**

laguntza izaerakoak, izan dinamika komunalak edota herritarrekin batera abiatutakoak.

**Ordenantza Fiskalak ere egocera berrira birmoldatu dituzue, hobariak jasotzeko aukera beste esparru batzuetara zabalduz. Nola finantzatuko dira neurri hauek denak?**

Testuinguru zail honetan, guretzako garrantzitsua da gizartean babesa handitzea. Aipatu

duzun bezala, 2022ko ordenantzetan tasen eta zergen %1,5eko igoera planteatu dugu, igoera orokor gisa. Aberastasunaren banaketa justuago bat lortzeko bidean, nahi duguna ere bada gehien dutenek gehiago ordaintzea, gutxiago dutenek gutxiago ordaindu ahal izateko. Ikuspegi horri begirako ordenantzak osatu ditugu. Horrek ere ahalbidetu digu tasetan eta, batez ere, zerbitzu publikoetan hobariak aplikatzea, eta hobari garrantzitsuak izango dira Haur Eskolan, kiroldegiko ikastaro edo abonuetan, Udajolasen... Zertarako? Zerbitzu publikoetan herritar guztien aukera berdinduz

tasuna bermatzeko.

Horretaz aparte, 2022an beste dirulaguntza lerro bat ere jarriko dugu martxan, gizarte larrialdietarako udal laguntzak. Helburu jakin bat izango dute: zailtasun ekonomiko larriak dituzten pertsonen, ohiko gastuei edota ezohiko gastuei aurre egiteko emango zaien laguntza puntuala. Eta hori 2022. urtean abiatzera goaz.

Ia 13 milioi euroko aurrekontua izango da datorren urtean izango duguna. Iaz baino zertxobait gehiago eta iaz ere aurrekontu altua izan genuen. Bi arrazoi nagusi daude aurrekontua horren altua izateko. Alde batetik, Foru Aldundiak udalei bideratzen dien foru funtsa handitu egingo da. Foru funtsetik 4.700.000 euro jasoko ditugu. Beraz, udalen finantziazioan arnasbide garrantzitsu bat izango da ekarpen hori. Bestetik, datorren urtean zorpetzearen aldeko apustua egin du Usurbilgo Udalak. Inbertsio ahalmena handitu ahal izateko, batez ere. Legealdi honetan mailegutik kendu edo amortizatu ahal izango dugun adina zorpetuko gara.

## “Pandemiak oso une gogorak pasarazi dizkigu”

**NOAUA! Gobernatzeko erabakiak hartzea da. Erabaki guztiak ez dira herritar guztien gustukoak izaten. Zenbat lagun galdu dituzu alkatetzan zaudenetik?**

**Agurtzane Solaberrieta, EH Bildu:** Esango nuke ez ditudala lagunak galdu. Kontziente gara erabaki guztiak ez direla denon gustukoak eta hori kudeatzen ikasi egin behar da. Askotan gertatzen da: batzuk ideia batekin etortzen dira eta ezin badute hori egin, haserre-

tu egiten dira. Ulertu behar da beti ezin dela nahi dugun hori egin. Agian egin daiteke, baina beste modu batean. Eta horrelakoetan, kosta egiten zaigu gure eskema horretatik ateratzea. Inor haserretu bada, esango nioke ez dugula hartu erabakirik inor haserretzeko asmoz, ustez herriarentzako onena eta egokiena delako hartu ditugula erabaki horiek. Eta ez badira ulertu edo azalpen gehiago eman behar baditugu, gure ateak irekita daude.

**Laster, bi urte t`erdi egingo dituzu alkatetzan. Epe honetan, zein izan da unerik gozoena?**

Pandemiak oso une gogorak pasarazi dizkigu. Abiatutako ekimenen artean, bat bereziki polita izan zen. 65 urtetik gora dituzten herritar guztiei deitu genien telefonoz, ea zer moduz zeuden galdetzeko. Pandemia honek gehien kolpatu duen kolektiboa izan da eta konfinamendua oso gogorra izan zen beraientzat. Telefono dei horien helburua zen babesa eta lagun-

tza eskaintzea. Jendeak izugarri eskertu zituen dei horiek.

Behin kaletik nindoala, emakume batek geldiarazi ninduen eta zera esan zidan: “Eskerrik asko nirekin gogoratzeagatik”. Hori bihotzeraino iritsi zitzaidan. Gure sentimendu guztiak borborka zeuden garai horretan, halako keinu txiki batek zer nolako garrantzia izan zuen jende askorentzat. Niretzat ere, une hori oso hunkigarria izan zen.

# “Gure minak ez digu utzi bestearen mina ikusten. Uste dut denok ere ariketa bat egiten ari garela”

**NOAUA!** Urteotan oso garai korapilatsuen lekuko izan gara. Gatazka armatuak edota ilegaltzazioek asko ozpindu zituzten alderdien arteko harremanak. ETak bere jarduna eten zuenetik hona, giroa aldatu egin da. Alderdien arteko harremanek ere hobera egin al dute?

**Agurtzane Solaberrieta, EH Bildu:** Komunikazioa ona da. Zuk diozun bezala, herri honek gatazka politikoa armatu gogor bat bizi izan du eta indarkeria mota asko egon dira, tamalez. Horrek eragina izan du gure arteko bizikidetzan, ez soilik alderdien arteko harremanean. Oro har, esango nuke. Herritarren arteko bizikidetzan ere eragin du eta horrek harreman asko ozpindu eta trakestu ditu. Uste dut urte luzeetan lubakietan aritu garela eta bakoitza gure minetik, gure sufrimendutik aritu garela. Eta gure minak eta sufrimenduak ez digula utzi bestearen mina eta sufrimendua ikusten. Uste dut denok ere ariketa bat egiten ari garela.



“Herri honek gatazka politikoa armatu gogor bat bizi izan du, eta horrek eragina izan du gure arteko bizikidetzan”.

## AGURTZANE SOLABERRIETA

**“Alderdi politikoen artean errespetuzko harremana daukagu Usurbilen. Hala jarraitu behar dugu eta uste dut horretan denok ari garela ikasten”**

ETak bere jarduna eten zuen duela hamar urte, baina oraindik sufrimendu asko bizi-bizirik daude eta hori ezin dugu ahaztu. Espetxeetan adibidez, euskal preso ugari daude oraindik. Gatazka politikoa armatu horrek

utzitako ondorio asko oraindik bizirik daude eta ondorio horiek bizirik dauden momentutik sufrimendua ere hor dago. Euskal presoena esate baterako, edota duela aste batzuk eman zena; Auzitegi Nazionalen euskal presoen abokatuen aurkako epaiketa zentzugabea. Zentzugabea izanagatik ere, fiskaltzak 60 urte eskatzen ditu sei auzipeturen kontra. Beraz, oraindik hori hor dago.

Hala ere, esango nuke bizikidetzaren alde urrats esanguratsuak eman direla. EH Bildu koalizioak ere eman ditu Aieteko Konferentziaren 10. urteurre-

nean. Horrek guztiak herritarren arteko harremanean, gure senideen arteko harremanean eta, noski, alderdien arteko harremanean eragina izan du.

Usurbilen, alderdi politikoen arteko harremana ona da. Proiektu ezberdinak ditugunez, batzuetan alderdion artean gure eztabaidak izaten ditugu osoko bilkuretan edo batzorde batzuetan. Normala den bezala. Batzuetan akaso biziak eta beroak izan dira, baina uste dut gai izan behar dugula bereizten zer den eztabaida politikoa eta zer den pertsonen arteko harremana. Gure arteko harremana ona da, errespetuzko harremana daukagu gure artean. Hala jarraitu behar dugu eta uste dut horretan denok ari garela ikasten.

*Elkarrizketa hau eta ‘Kafe Garaia’ ataleko gainontzeko guztiak bere osotasunean ikusi ditzakezue honako helbidean: [noaia.eus/bereziak/kafe-garaia](http://noaia.eus/bereziak/kafe-garaia).*

## “NOAUA! herri bizitzaren ispilu da”

**NOAUA!k 25 urte bete ditu. Zure ustez, zer du faltan NOAUA!k? Eta izatekotan, zer du soberan?**

**Agurtzane Solaberrieta, EH Bildu:** Informazioaren eta komunikazioaren esparruan, handiek eta handikiek dena bereganatu nahi duten honetan, uste dut inoiz baino garrantzitsuagoa dela gertukoa edo tokikoa babestea. Horretan ere, beste arlo batzuetan bezala, NOAUA!k izugarrizko ekarpena egiten du eta uste dut usurbildarrak benetan zortekoak garela ez bakarrik NOAUA! bezalako aldizkari bat edo webgune bat izatea-

gatik, baizik eta halako kultur elkarte dinamiko bat izateagatik ere. Uste dut NOAUA! badela herri bizitzaren ispilu. Herriari bizitasuna ematen dio eta hamaika egitasmoren sustatzaile eta perrexila da.

Gainera, esango nuke NOAUA! Kultur Elkarteak gai izan dela garai berrietara egokitzen.

Nik ere aprobetxatu nahi dut elkarrizketa hau eskerrak emateko egunero-egunero hori dena posible egiten duzuen langileei eta NOAUA!ren bueltan dauden herrikide guztiei. Gogoan daukat Olatz Altunak NOAUA! Festan luzatu zuen mezua. Be-

rak esaten zuen NOAUA! ere hautu bat dela. NOAUA! ez da berez sortzen, besterik gabe. Konpromiso bat eskatzen du, jarrera bat eskatzen du. Jada 25 urtez iraun duen aldizkari bat eta elkarte bat direnez, uste dugu hor daudela besterik gabe, eta horren atzean egon behar du herritarren konpromisoa eta egon behar du herritarren bultzada.

Atentzioa ematen dit bazkietza kopuruak. Esango nuke nire garaitik hona (duela urte batzuk NOAUA!n egin zuen lan) ez dela ia ezer mugitu. Halako elkarteek eta aldizkariak oraindik orain herritarren ba-

besa eta bultzada behar dute. Halako elkarteek eta aldizkariak ezin dute diru laguntzekiko menpekotasun bat izan, bestela asko baldintzatzen delako proiektuaren egoera. Diru laguntzak jaisten badira, akabo. Uste dut bestelako sostengu bat ere behar dutela eta hori nabarmendu nahiko nuke. Ahalegin bat egin behar harko genukeela edo egin behar harko zenuketela. Herritarrek beste begirada batez ikusi behar dute NOAUA! eta uler-tu sustengu ekonomiko hori ere garrantzitsua dela. Horretarako bazkide egitea baino keinu hoberik ez dago.

## Abenduko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

## Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Aurtengo urtea ere gogorra izaten ari da, eta beldur zara seigarren olatuak gabonak izorratuko ote dizkizun.

Hileko aholkua: Lasai egon, Olentzerok pandemian ere lan egiten du eta!

**CANCER**

Datorren urtea aurtengoa baino hobea izan dadin behar duzu.

Hileko aholkua: Hasi zaituz mahatsekin entrenatzen, beste la jai duzu!

**LIBRA**

Mugikorrarekiko menpekotasun handiegia duzu. Ez da batere osasungarria zuretzat, komunera ere eramaten duzu-eta. Hileko aholkua: Berriz hasi beharko duzu komuneko baldosak kontatzen eta xanpua- ren etiketak irakurtzen.

**CAPRICORNIUS**

Lagun ezkutuaren kontua ez zaizu batere gustatzen, eta amorratuta zaude.

Hileko aholkua: Galtzerdi batzuk oparitu behar dizkiozu? BENETAN? Ez daukazu barka- ziorik!

**TAURUS**

Urtea bukatzen ari da eta erronka berriei ekin nahi diezu.

Hileko aholkua: Pentsatu al duzu noizbait NOAUA!k antolatzen duen San Tomas azokako babarrun lehiaketan parte hartzea?

**LEO**

Zure bizitzari zentzua aurkitu nahi diozu, baina ez dakizu nora joan.

Hileko aholkua: Une polita izan daiteke NOAUA!ko bazkide egin eta proiektuan parte hartzeko.

**SCORPIUS**

Urduri zabaltza azken aldian eta ez zaizkizu komeni emozio indartsuak.

Hileko aholkua: Abenduko portaleko bilerara EZ joan!

**AQUARIUS**

Hilabete honetan maitasun kontuak aldeko izango dituzu eta prest egon beharko duzu zure bihotza irekitzeko.

Hileko aholkua: Eskura izan bonboi kaxa bat, zer gera ere!

**GEMINI**

Iaz Durango Azokarik ez zen izan eta desiratzen zaude aurten bertara joateko txanda hartzeko.

Hileko aholkua: Azokara joatea ondo dago, baina ez legoke gaizki urtean zehar ere herrian libururen bat erostea!

**VIRGO**


Gabonak ez dituzu bereziki maite, baina desiratzen zaude oporrak hartzeko.

Hileko aholkua: Ez zaituz gabonetako espirituaz gozatzeko!

**SAGITARIUS**

Bigarren urtez pandemian ospatu beharko duzu zure urtebetetzea, eta triste zaudenahi zenukeen festa ezin duzulako antolatu.

Hileko aholkua: Gaztaina erreen postuaren ondoan geratu zaitzekete ospatzeko.

**PISCIS**

Abendua hasieratik gabonetako espiritua sartu da zure bizitzan. Giraladak, espumilloia, zuhaitza eta Olentzeroren iruditxoak beteta dago zure etxea.

Hileko aholkua: Zergatik ez duzu zuzenean Olenzeroren delegazio bat jartzen?

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
·eguneko menua ·asteburuko menua  
·karta ·oilasko erreak, pizzak..  
**JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!**  
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

Josue  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

# San Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



**Noaua!k baserritar guztiak  
gonbidatu nahi ditu**

Herritarren sagardoa dastatzeko eta  
babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste.  
Aurten lehiaketa berritua izango dugu.



Abenduaren **19an**  
**igande** goizez

## Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produktorekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

## Sagardo lehiaketa:

Sagardoa etxean egiten duen usurbildarrek parte hartu ahal izango dute.

(Sagardotegiek ezin dute parte hartu lehiaketa honetan).

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

## Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:

**ABENDUAREN 9tik 13ra (9,10 eta 13)  
azken eguna 13a**

- **ORDUTEGIA:** 8:00-13:00 eta 16:30-18:30

## Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:

- 1. saria: 150€ + txapela
- 2. saria: 90€ + kopa
- 3. saria: 50€

Informazioa: Noaua!ko egoitzan eta 943 36 03 21 telefonoan



**noaua**

# Udazkeneko Azoka, iruditán



Negu giro betean ospatu zen Hurbilago Elkarteak antolatutako Udazkeneko Azoka. Herriko nahiz kanpotik etorritakoen produktu edota sortze-lanen erakusleihoan bilakatu zen pilotalekua azaroaren 28an.

# Joseba Tapiak: “Soinu kromatikoak sortu ditu doinu hauek”

Joseba Tapiak disko berri bat aurkeztu zuen aurkezteko astean, bakarkako ibilbidean plazaratzen duen bederatzigarrena. Egon edo ez egon, hala du izena lan berriak, Koldo Izagirre idazlearen hitzak ditu oinarrian. Diskoa Durangoko Azokaren bezperan plazaratu badu ere, udaberrian hasiko da zuzenekoak eskaintzen. Lehen, 2022ko apirilaren 28an Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

TranpAldo izeneko diskoa aurkezteko, Joseba Tapiak hamar laguneko taldea osatu zuen 2019an. Lan-talde bera mantentzeaz gain, beste hainbat kolaboratzaile elkartu dira kanta berrien grabazioan. Tartean, Et Incarnatus harizko orkestra. Beraz, duela bi urte



Koldo Izagirrek idatzi ditu 'Egon edo ez egon' diskoko hitzak eta Joseba Tapiak osatu ditu doinuak. Lizardi eta Laurok dendetan erosi ahal izango da.

## 'EGON EDO EZ EGON'

**Diskoa orain plazaratu badu ere, lehen kontzertua apirilaren 28an eskainiko du, Donostiako Victoria Eugenia antzokian**

urratu zuen bidetik segitzen duela esan daiteke.

## Soinu kromatikoarekin idatzitako kantak

Salbuespen batekin: soinu kromatikoarekin konposatu eta grabatu ditu kanta berriak. Diskoko moldaketa denak ere soinu kromatikoarekin idatzi dituela azaldu zuen Tapiak. “Moldaketa guztiak neronek egitea erabaki nuen. Esango nuke,

bai metaletan, bai orkestran eta bai ahotsetan koatriaden festa bat dela disko hau”. Lau ahotsez osatzen diren harmoniak konposatzen lan handia hartu behar izan duela aitortu zuen.

Egon edo ez egon diskoko abestiak Andoaingo Garate estudioan grabatu zituen, Kaki Arkarazoren gidaritzapean.

## “Kantuok bakarrik ezingo nituzkeen egin”

Diskoko letrak Koldo Izagirrenak dira eta Donostian eskainitako prentsurrekoan azaldu zuenez, umorezkoak dira nagusi. Joseba Tapiak argitu zuenez, “kantuok bakarrik ezingo nituzkeen egin”. Letren moldaketetan ordea, “libertatea eduki dut, eta Koldori asko begiratu gabe neronek erabaki ditut konposizioak”.

**BAZKIDEEN TXOKOA**  
noaua! euskararen aterpe



**GABONETAKO ZOZKETAK**



**Lau saski zozketatuko ditugu**

Bi saski 2021ean zehar  
publia jarri dutenen artean  
eta beste bi  
NOAUA!ko bazkideen artean.



# Ezin eleganteago Aginagako Eliza Zaharra

Lehen aldiz, larunbat gauean, Aginagan Kultur Gala ospatu zuten Eliza Zaharrean. Elegantzia lehen lerrora eramanda, hainbat ekitaldi txiki egin zituzten auzotar zein Euskal Herriko artista batzuk: Maialen Aristegi, Hodei Magoa, Ixak Arruti, Maddi Zuloaga, Helene Alustiza, Idoia Torregarai, Mirari Martiarena...



Musikaz, bakarrizketez eta magia gozatzeko aukera izan zuten larunbatean.

Pare bat orduz, musikaz, bakarrizketez eta magia gozatzeko aukera izan zuten bertara hurbildutako auzotarrek. Galaren gidaritza ere oso gustokoa izan zuten auzotarrek, bi artista jarri baitzituzten ohol-tzan. Fotocalla ere eskuragarri izan zuten, bai eta trago batzuk hartzeko aukera ere.

## Abenduak 12, igandea

■ 18:00 “Bost minutun” an-

tezlana, Aginagako Eliza Zaharrean.

■ Sarrerak: Arraten 5 eurotan.

■ Zehaztasunak: “Pablo Mir antzerkigile argentinarrek idatzitako komedia honek hiru denboraldi egin ditu dagoeneko karteldegitan eta bidean, sari ugari jaso ditu. Obra honek, umore klabean, ume bat izateko berantiar den bikote

bati haurdunaldi baten aurrean sortzen zaizkion kezka eta beldurrak aztertzen ditu, eta, era berean, jaioberri horren inguruan sortzen diren fantasiak. Bost minutu esperoan, eternitatea izan daitekeen tartea Nekane eta Koldorentzat. Amildegira jauzi egiteko bost minutu, agian? Datorrena datorrela...”.

Antolatzailea: San Praixku Guraso Elkarte.

## Abenduak 18, larunbata

■ 18:00 “Botadun katua” antzezlan Eliza Zaharrean.

■ Sarrerak: Arrate tabernan 3 eurotan.

■ Zehaztasunak: “Charles Perraultek jasotako “Botadun Katua” ipuin klasikoaren moldaketa. Amona batek errota zaharreko trasteak banatuko ditu iloben artean herentzia gisa eta proba modura: umeetako bakoitzak gazteluko atek irekitzea lortu beharko du jaso duen elementuaz baliatuta. Gazteluak aspaldi galdu zuen magia. Amonak ez du bere ilobek magia galtzerik nahi eta jolas honekin iloben irudimena eta kemena piztuko ditu. Amonak dioen moduan, ezina ekinez egina!”.

# ILARGIAREN EGUTEGIA 2022

Alkartasunaren dendan salgai eta on line [www.alkartasuna.eus](http://www.alkartasuna.eus) webgunean



Jakoba Errekondok garaiko uztak eta baratzea, fruitu arbolak eta basoko lanak.  
Pello Zabalak aukeratutako esaerak.  
Xabier Ormaetxea Aklzuk ilargiaren eragina eta saiokak.  
Maria Thunen egutegi biodinamikoarekin osatua.



# Herritarrek Durangoko Azokan

COVID19 neurrietara egokituko da abenduaren 4tik 8ra ospatuko den Durangoko Azoka. Landakon sartzeko aurrez eman beharko da izena. 1.200 bisitari elkartu ahalko dira aldi berean bertan, ordu eta erdiko txandetan. Urtero moduan, iragarri diren ekitaldietan herritarren parte hartzea izango da. Hemen egitaraua, informazio gehiago durangokoazoka.eus atarian.

## Abenduak 4, larunbata

■ 12:00-13:00 Talaia-Musika Eskolan: "Ilargia eta Landareak" liburu aurkezpena. Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga egileen hitzaldia ilargiak landarean duen eraginaz.

■ 17:00-17:30 "Sua" komikiaren aurkezpena Talaia Musika Eskolan. Alex Tello, Julen Ribas, Xabi Bastida eta Aitor Gorosabel. "Alex Tellok, Su Ta Garren kanten pasarte batzuk bata bestearen atzetik lotuz, sorturiko fikziozko istorio bat".



Alex Tellok 'Sua' komikiaren gidaria idatzi du. Argazkia: Unai Huizi / Goiena.

## EKITALDIAK

### Jakoba Errekondok eta Yolanda Arrietak hainbat hitzordu izango dituzte azoka egunetan

## Abenduak 5, igandea

■ 13:00-13:30 "Letren jolaslekuan" liburu aurkezpena Yolanda Arrietarekin eta Eider Eibarrekin Sagunanbara-Elkartegian. Aurkezpen dinamikoak: "hitz-jokoak, ikus-entzuleen

partaidetza eta irudiak zuzenean". 6-8 urteko haurrentzat eta nahi dutenentzat.

■ 15:00-15:30 "Groau!" liburu berreditatuaren aurkezpena Yolanda Arrietaren eskutik, Sagunanbara-Elkartegian. Irakurketa ozena eta dramatizatua ikus-entzuleekin. 6-8 urtekoentzat eta nahi duenentzat.

■ 16:00-16:30 Jakoba Errekondoren "Ilargiaren egutegia 2022" aurkezpena Talaia-Musika Eskolan.

## Abenduak 6, astelehena

■ 12:30-13:00 "Zerak" solasaldia Yolanda Arrietarekin Aho-tsenean, Landakon. "Nire lagun ezkutukoak nire barruko indarrak dira. Susmoak, ikarak, galerak, nahiak... zerak".

■ 16:00-16:30 "Etxeko landareak. Etxe barrua, balkoia eta lorategia" Jakoba Errekondoren liburu aurkezpena, Talaia-Musika Eskolan. "Loreak etxeko pozak dira. Ongi zaintzen dituenak bizitzaren edertasuna jasotzen du opari. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu".

■ 17:30-18:30 Joan Mari Torrealdairen "Egunkaria, gizarte zibilaren arrakasta" kontakizun liburuaren inguruko elkarrizketa Joan Mari Larrarterekin Talaia-Landakon.

## Abenduak 7, asteartea

■ 19:30-20:00 Joseba Tapiaren bakarkako "egon edo ez egon" 9. diskoaren aurkezpena Aho-tsenea-Musika Eskolan.

# Atzegizaleen sarea indartzeko erronka

60 urte betetzera heldu den Atzegi elkarteak ikasturte berezi honi begirako erronkak aurkeztu ditu egunotan Lasarte-Orian. Oraingoan bereziki Atzegizaleengan jarri nahi dute arreta.

"2000. urtean Atzegi Atzegizale figura sortu zuen, adimen desgaitasuna duten pertsonetik jarri jarrera positiboa erakusten duten pertsonak identifikatzeko. Urte hauetan zehar Atzegizale komunitatea hazi egin da".

Atzegizale izan daiteke boluntarioa den edo Atzegi



"Urte hauetan zehar Atzegizale komunitatea hazi egin da".

antolaturiko jardueretan parte hartzen duena. Baina haratago doa eta beraz, asko konturatu gabe ere dagoeneko Atzegiza-

le izan daitezkeela ohartarazi dute. Hala dio hain zuzen Atzegiren kanpaina berriko leloak; "Agian zu ere Atzegi-

zalea zara". Atzegizalea zer den ulertzeko hainbat baliabide plazaratu du Atzegi. "Atzegizaleak leku askotan eta adin tarte guztietan aurki ditzakegu; desgaitasun intelektuala duten pertsonak diren bezala onartzen dituzte, ez dituzte epaitzen, haiengan sinesten dute eta gizartean parte hartzeko aukerak eskaintzen dizkiete. Keinu txikiak diruditen arren, eragin handia dute desgaitasun intelektuala duten pertsonen bizitzan".

Informazio gehiago atzegi.eus atarian.

# Aldamu ixtera doaz, beste ogibide baten galera

**B**este denda bati agurra, baina baita ogibide baten galera ere; Aldamu konponkenten denda itxiko dute urte amaieran, 35 urtez lanean aritu ostean jubilatzerako baitoaz Maria Eugenia Aizpuru eta Vidal Benito.

**NOAUA! Familia tradizioari segida eman diozue urte guztioan.**

**Aldamu Konponketak:** Tolosako senideekin ofizioa ikasi genuen. 1986ko Usurbilgo jaietan ireki genuen zapata denda. Ordutik lan egiteko moduak aldatu dira. Zapatak ere desberdinak dira. Lehengo oinetakoak hobeak ziren, kola mota bakarra zegoen oinetako guztientzat. Gaur egun aldiz kola mota ezberdinak dira, oinetakoak oso plastifikatuak daudelako, okerragoak dira. Kola hauek erabiltzen ikasi beharra eskatzen du toxikoak baitira. Erakusketaren batera joan izan gara Bartzelona edo Bilbora. Ikasitakoa gero aplikatzen zoaz. Zapatagileen whatsapp talde bat ere badugu elkar laguntzeko.

**Denda ireki zenutenean zapata denda gehiago baziren?**

Orkoi, Aritzeta eta gu. Lehen jendea ez zen hainbeste



“1986ko Usurbilgo jaietan ireki genuen, zapata denda gisa”.

## ALDAMU KONPONKETAK

**“Pena ematen digu orain bezeroak hala uzteak. Ia itxi behar ote dugun galdezka ari zaizkigu bezeroak, pena dutela segidarik ez izateagatik. Gu prest gaude inor interesaturik balego irakasten laguntzeko”**

kanpora joaten erostera. Oinarrikoa herrian zegoen. Garai haietan ez zegoen kiroletako oinetakoetan hainbesteko eskaintza, gaur egun bezala. Egun askoz gehiago dira, eta horregatik konpontzen dira, garestiak direlako.

**Bezeroen kontsumitzeko modua aldatu al da urteotan?**

Beti herrikoekin lan egin izan dugu. Agian garai batean baino gehiago exijitzen da orain. Ulergarria da. Lehen agian ez, baina orain konponketaren bat egin aurretik zenbatean aterako zaien jakin nahi izaten dute. Oso eskertuak gaude bezeroekin, oso gustura aritu gara. Lanera etortzeko perezarik ez dugu izan.

**Kezka sortu dizue merkatalgune handiek zein denda txikien itxierak?**

Kezka hasieran izan genuen. Lokal honetan sartu ginenean oinetakoak saltzen hasi ginen.

Merkatalgune handi berriak irekitzen hasi zirenean ezin genuen ordea haiekin lehiatu. Ezin dituzu bizpahiru marka ekarri, merkatalgune handietan 50 daudenean. Haiei prezioa merkatzen diete eta ezin gara lehiatu. Hor bai nabaritzen hasi ginen eta oinetakoak saltzeari utzi behar izan genion. Orduantxe, orduko burdin denda bat itxi zuten eta haiei giltzak egiteko makinak erosteko aukera izan genuen. Eta ordutik jada konponketa denda izatera igaro ginen; giltzak egin, oinetakoak konpondu, josteta lanak... Guztiari kremailerak jarri izan dizkiogu; arropak, kanpin dendak...

**Negozioak jarraipena izatea nahiko zenukete noski?**

Bai noski. Pena ematen digu orain bezeroak hala uzteak. Ia itxi behar ote dugun galdezka ari zaizkigu bezeroak, pena dutela segidarik ez izateagatik. Gu prest gaude inor interesaturik balego irakasten laguntzeko. 35 urte daramagu eta gaur egun oraindik ikasten segitzen dugu. Egunez eguneko irakasten dizu. Oso gustura aritu gara lanean. Lehen gutxirekin gehiago egiten genuen. Orain asko behar duzu, asko, lan berdina egiteko.

## “Mila esker urteotan gudan izan duzuen konfiantzagatik”

**NOAUA! Jada agurtzen hasiak zareten bezeroei zer esan?**

**Aldamu Konponketak:** Mila esker urte guztionagatik, gudan izan duten konfiantzagatik. Inork segida eman nahiko balio laguntzeko prest gaude. Urte amaierara arte hemen izango gara. Jendeak orain konponketa lanak nola egingo dituen galdetzen digu. Bezeroen bat konponketa

lan baten beharrean estuasun batean izan eta inor aurkitzen ez badu, prest gaude Tolosara sarritan joaten garenez hango senideei uzteko, konponketa lana bertan egingo lukete.

**Dendaren itxierarekin batera, ogibide baten galera ere izango du herriak.**

Garai bateko ogibide askorekin gertatu da; gainbeheran doaz, gutxitzen. Konponke-

tarako biltegiak ere itxi dira, lehen Gipuzkoan bizpahiru zeuden eta egun Euskal Herrian ez dago bakar bat ere. Lehen Donostian biltegia zegoenean nahi genuen produktua ikusten genuen. Orain katalogo baten arabera ikusi behar. Ezin duzu dagoen guztia ikusi. Faltan botatzen dugu hori.

**Inork negozioari segida eman**

**nahiko balio zer hartu beharko luke kontuan?**

Ofizioa ezagutu eta mugitzen jakitea. Gu ere tindategi baten sukurtsala gara. Guk egiten dugun moduan guri egiten digute. Ofizio honek lana gogotsu hartu eta asko mugitzea eskatzen du. 35 urte egon bagara hemen beste hainbeste urte lanean segi daiteke baina mugitu beharra dago.

# Erraustegiko langileak, greban

Azaroaren 23an greba mugagabeari ekin zioten Zubietako erraustegiko langileek, ELA sindikatutik ohartarazi dutenez, “lantokian pairatzen duten prekarietatea ezabatzeko. Ekobal Operación y Mantenimiento S.L. azpikontratak kudeaturiko enpresak hasieratik ez ditu bermatu osasun eta lan baldintzak”.

Halere, langileoi greba eskubidea ere ez zaiela bermatzen ari salatu dute sindikatutik. “Eusko Jaurlaritzak ezarritako gutxieneko zerbitzuek urratu” egiten dute “langileen greba eskubidea”. Datuetan zehaztu du ELA-k aipatu urraketa; “ekoizpen arloan %70eko gutxieneko zerbitzuak ezarri dira, eta balorizazio plantan, berriz, %90ekoak”.

## Kaleratzeak

Zubietako erraustegian beharrean dauden langileen egoera prekarioa agerian utzi nahi izan du ELA-k ohar bidez. “Laneko segurtasun eta osasun arloko neurririk eza etengabea da lan-



Lanaldi amaigabeak jasan behar dituzte. “Kasu askotan, etenik gabeko txandak 12 ordura arte luzatzen dira”.

## ELA

**“Segurtasun eta osasun arloko neurririk eza etengabea da lantegiaren jarduera hasi zenetik”**

tegiaren jarduera hasi zenetik. Laneko arriskuen ebaluazioa desegokia da, eta ez dator bat Zubietako lantokiaren errealitatearekin”.

Lanaldi amaigabeak jasan behar dituzte gainera, “kasu askotan, etenik gabeko txandak 12 ordura arte luzatzen dira, eta aldi berean, baimendutako legezko gehienekoaren gainetik aparteko orduak egiteko betebeharra ezartzen da”.

## “Egutegiak egun batetik bestera aldatzen dira”

Atsedeen egunak ere ez dituztela errespetatzen dio ELA-k. “Egutegiak egun batetik bestera aldatzen dira, lanaldien arteko atsedendialdiak eta hitzartutako oporrak errespetatu gabe. Errealitate horrek ezinezko egiten du lana eta bizitza bateragarri egitea”.

Hori gutxi ez eta, “enpresak sistematikoki kaleratzeak egiten ditu inolako justifikaziorik gabe. Jardunbide hori errepikatzen ari da jarduera hasi zenetik, eta azken kaleratzea oso egun gutxitan gertatu da; langilea berehala berriz hartzea eskatzen dugu”.

## Lan hitzarmen espezifikoa

Era berean, “lantegiaren errealitate espezifikoa jasoko duen enpresa hitzarmen baten negoziazioa irekitzea eskatzen du” ELA-k, egun dutena “bide garbiketako sektorearena” dela ohartarazi ostean. “Jarduera gehiago biltzen dituen arren, ez dio erantzuten Zubietako

zentroko lan errealitateari”.

Egoera honetan, laneko eta ingurumeneko legedia zorrotz betetzea eskatzen dio ELA-k enpresako zuzendaritzari. “Erraustegian langileek, bai herritarrek, oro har, eskubide horiek bermatuak izan beharok lituzkete”.

Erraustegiko langileekin gertatzen ari denaren erantzukizuna “Ekobaleko zuzendaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokie”, aipatu sindikatuaren esanetan, ohartarazten dutenez, “azken horrek aipatutako azpikontratarari esleitu zion erraustegiaren ustiapena”.

## Kulturgileen elkargunea eraikitzeko lehen urratsak

Usurbilgo kulturgileen elkargunea eraikitzen hasitako prozesua iragarri berri dute, eta horri bide emateko, lehen bilera praktikoa egin zuten larunbat goizean. Hogei bat pertsona elkartu ziren Udarregi Ikastolako erdiko aretoan lehen hausnarketak egin, eta prozesuaren bidean lehen urratsak emateko.

Euskara eta kulturaren loturari buruzko hausnarketa egin zuten larunbatean. Euskal Herria gai nagusitzat hartuta, euskarak kulturaren duen garrantzia eta kulturak euskararen duena aztertu zituzten. Lehenik eta behin, modu teorikoago batean, gaia aurkeztu zuten dinamizatzaileek eta ondoren, taldeka jarrita hausnarketa egin zuten euskalduna zer den definitzeko. Euskara eta kulturaren arteko hausnarketa izan zen.

Behin taldeka ideia batzuk zehaztuta, gainontze-koekin partekatu zituzten ideiak, eta ondorio orokorrak atera zituzten.



Hogei bat pertsona elkartu ziren Udarregi Ikastolan.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

  
**JUANTXO  
BURDINDEGIA**  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

  
**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

# 2022rako udal aurrekontuak, hasieraz onartuak

2022rako udal aurrekontuak tramitazio bidean urrats garrantzitsua eman zuten azaroaren 25eko udalbatzarrean; hasieraz onartu zituzten. Baita urte berri-rako udal Plantilla Organikoa eta udal Lanpostuen Zerrenda ere. Azken biok EHBildu eta PSE-ren babesarekin, EAJ abstentitu zen. Aurrekontuak aldiz EHBilduren aldeko bozkekin. Oposizioa bi udal taldeek aurka bozkatu zuten.

Udal gobernu taldetik ziotenez, Covid19ak eragindako pandemiak eta haren ondorio sozioekonomikoei baldintzatu-tako udal aurrekontuak izango dira honako hauek bigarren urtez. Lehenetsun argi bat izango dutena beste behin; "herritar eta kolektibo zaugarrienak babestea", asteotan herritar eta eragileekin auzoz auzo eginiko bilera errondan nabarmendu izan duten moduan.



Udal aurrekontu berria Pelaiotena eraikinaren amaierako lanak aurreikusi dira.

## PLENOA

### Udal gobernuaren lehentasuna izango da "herritar eta kolektibo zaugarrienak babestea"

Horretarako "estaldura soziala" nabarmen haztea erabaki du EHBilduk. KPI igoera txikiarekin batera Ordenantza Fisikalei begira hobarien eskaintza zabaldu dute eta ia indartutako diru-laguntza lerroei beste

bat batu diete; Gizarte Larrialdietarako Laguntza Propioa. Gizarte laguntzetara sarbiderik izan ez eta behar larriaren diren herritarrei zuzendurikoa.

Anbizio handiko aurrekontuak iragarri dituzte, ia 13 milioi eurokoak. 556.000 euro gehiagoko ekarpena jasotzea aurreikusten du Udalak foru funtsetik; 4,7 milioi euro guztira. Inbertsio ahalmena hazteko milioi bat euroko mailegua ere eskatuko du Udalak, legeal-

di hasieratik hona, zorpetzea %22tik %12,48ra murriztu ostean.

Udal zerbitzua indartu asmo dute; langileen soldatetan %2ko igoera, zenbait sail giza baliabide gehiagoz hornituko dituzte... "Anbizio handiko" egitasmoei helduko diete, XXI. mendeko erronka globalei tokitik erantzuteko asmo dute; HAPO-aren lanketaren amaiera, Kalezarko Pelaiotena bukatzeko lanak, Kirolaren Plan Estrategikoa, zaintzen ekosistema, migrazio olatuek eragindako aniztasunaren kudeaketa, trantsizio energetikoa, turismo eredu berria edota Usurbil herri burujabe izateko norabidean kokatuko duen uraren kudeaketa. Ia herri osora zabaldu nahi du Udalak Andatzatik datorren ur edangarriaren hornidura. Añarberri ordaindu beharreko horretan aurreztuko du udal-erriak; 100.000 euro urtero.

## Ekarpenen inguruko eztabaida

Herritar nahiz eragileekin egindako ekarpenak batu, plangintza batean bildu eta bideratzen joatekotan da udal gobernu taldea. Oposiziotik ere jaso dituzte hainbat ekarpen. "Zuek egindako proposamen asko txertatuak daude aurrekontu proiektuan", zioen alkate Agurtzane Solaberrietak azaroaren 25eko udalbatzarrean. Nahiz eta ohartarazi, EAJ-ren zenbait ekarpen "Udalari ez dagozkionak" izan.

### EAJ: "Inbertsio gaitasuna murriztu egin da"

Halere oposizioa bi taldeek udal aurrekontuon aurka bozkatu zuten. EAJ-tik ziotenez kolektibo zaugarrienak babesteko helburu orokorrek bat datoz. Baina "hainbat

ekarpen" egin eta "bakar bat ere ez du onartu" EHBilduk. Bizikidetza Plana, Zubietako bidea, padel pista, kirol proiektu estrategikoa, bideetako eserleku egokiak, Askatasuna plazako aparkalekuak... aipatu zituzten. Udal aurrekontuetako zenbakiak kezkarritzat jotzen ditu EAJ-k; gastuen gorakadak eta superabit arruntaren beherakadak. Horrez gain, "inbertsio gaitasuna murriztu da, foru funtsa handitu arren". EAJ-rentzat udal aurrekontuok "egunean egunekoak" dira, "etorkizunari begiratzen ez diotenak".

EAJ-ren adierazpenak mingarritzat jo zituen udal gobernu taldeak; haien ekarpenak ez zituztela kontuan hartu adierazi zuten jeltzaleek eta hau gertatu zuen EHBilduk, hainbat

proposamen aurrekontuen txertatu dituztela argi utziz. Inbertsio gaitasuna txikiagotu dela zioten EAJ-tik, "gizarte babesa ez da inbertsio bat?", galdetzen zuten udal gobernu taldetik. Xabier Olano udal kontuhartzaileak udalaren superabitaren azken hamarkadako bilakaera kontuan izanda, datuak eskutan, batz bestekoaren baitan dagoela argitu zuen.

### PSE-EE: "Ez dira guk aurreztuko genituzkeen aurrekontuak"

PSE-tik ere antzeko adierazpenak. Aurrekontuetako partiden alde agertu arren, "ez dira nire aurrekontuak, ez dira nik aurreztuko nituzkeenak" zioen Patxi Suarez zinegotziak. Gaineratu zuenez, "nire ekarpenak" ez direla onartu eta kon-

trako bozka iragarri zuen. "Ze ekarpen ez dira aintzat hartu?" galdetzen zion alkateak. "Aurreztu nituen seirak", erantzun zion PSE-ko zinegotziak. Lau behintzat txertatu zituztela erantzun zuen udal gobernu taldeak; Zubietta-Santuenea bideko seinalez tapena, Etxealdiako aldapako edota Mikel Laboa plazako desnibelaren gaiari heldzea... Halere, PSE-tik Patxi Suarezek zioenez, "exekutatu arte beharrezkoak dira. Ez zaudete ados".

Penagarritzat jo zuten udal gobernu taldetik oposizioa taldeen "egoskorkeria", neurri batean aurrekontuekin bat egiten dutela esan eta gero aurka bozkatu zituztela beste urte batez.

## Txikierdi eta Lasarte-Oria arteko bidegorriaren 2. fasea inauguratu dute

Gipuzkoako bidegorri sarea osatuagoa dago, oinezkoentzako nahiz bizikleta erabiltzaileentzako. Txikierdi eta Lasarte-Oriako eremuko bidegorriaren bigarren fasea inauguratu zuten azaroaren 26an Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Usurbil zein Lasarte-Oriako udaletako ordezkariak. Urbil merkataritza gune ingurutik hasi eta Michelin ingururainoko 979 metroko bide zatiaz ari gara.

### Usurbil eta Lasarte-Oria arteko "lotura segurua"

386.785,27 euro bideratu ditu Aldundiak lanotara eta ekitaldian zehar, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako diputatu Rafaela Romerok zioen moduan, "bi herrietako (Usurbil eta Lasarte-Oriako) bizilagunen eskaera historikoari erantzuten dio, konexio segurua eskatzen baitzuten bi hiriguneen artean oinez edo bizikletaz mugitzeko".

### Aurreko lanen jarraipena

Inauguratu zuten bide zatiari buruz gaineratu zuenez, "Foru Aldundiak saihestu ezin zuten eta saihestu nahi ez zuten komunikazio eta mugikortasunari erantzuten dio". Lehen fasea 250 metroko obra izan zen, 2016an inauguratu



Argazkian, Agustín Valdivia Lasarte-Oriako alkatea, Rafaela Romero Mugikortasuneko foru diputatua eta Agurtzane Solaberrieta. Rafaela Romeroren esanetan, "Usurbil eta Lasarte-Oriako bizilagunen eskaera historikoari erantzuten dio bidegorriak".

### RAFAELA ROMERO

**"Funtsezkoa da udalekin elkarlanean aritzea, herritarrei konexio eta zerbitzu onenak eskaintzeko"**

zutena. Bigarren fasea martxan jartzeak "jarraipena ematen die Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalerriak Donostiarekin lotzeko obrei".

### Elkarlana, "funtsezkoa"

Lankidetzaren balioa goraipatu zuen Romerok, balio "erreal eta beharrezkoa" dela nabarmendu zuen. "Funtsezkoa da udalekin elkarlanean aritzea, herritarrei konexio eta zerbitzu onenak eskaintzeko. Gure esku dugu gizarte-desberdintasunak ezabatzeko eta Gipuzkoa osatzen duten hiri eta herrien jasangarritasuna lortzeko tresna onena".

## Usurbilgo bidegorria gauzatzeko eskaera

Orain arteko elkarlanari jarraipena emateko deia egin zuten hain zuzen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak. Poztasuna agertu zuen zabaldu den bidegorri zatiarekin "Lasarte eta Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak mugikortasun aktibo eta jasangarriarekiko dugun konpromisoa adierazten duelako". Baina

Txikierdira arteko bide zatia ireki dela gogorarazi zion Foru Aldundiari, "Usurbilgo herrigunea urruti dagoelako". Elkarlanaren emaitza izan da bigarren fase hau eta bide horretan urrats gehiago ematea eskatu zuten Usurbilgo alkateak.

### Adostasunaren bidetik

Lan talde tekniko eta politiko

bat osatzea eskatu zion Diputazioari; herri hau zeharkatuko lukeen "trazatu horren inguruan hitz egin, ahal bada adostasunak lortu eta ahalik eta azkarren zati hori ere gauzatzeko". Gaurkoz Donostia alboan izan arren, oso zaila baitago motordun ibilgailuan ez bada bizikletaz Donostiara heltzea.

## Migrazioaren Euskal Itun Sozialarekin bat

Eusko Jaurlaritzatik jasotako proposamenari baiezkoa eman dio Usurbilgo Udalak; Migrazioen Itun Sozialarekin bat egin zuten azaroaren 25eko udalbatzarrean aho batez onartu zuten mozioaren bidez. Bueltan ordea hiru eskaera luzatu dizkio Jaurlaritzari: politika migratorioak garatzeko erakunde arteko mahaia aktibatzea, ituneko asmoak konpromisoetan bilakatu eta erakundeen artean programak adostea; eta azkenik, "itunak jasotzen duena garatzeko baliabideak" ezartztea.

## Zumartekoek ekitaldiak, atzeratuak

Santa Zeziliren omenez azaroaren 23 eta 25erako iragarriak zituen kontzertua eta kalejira bertan behera uztea erabaki zuen Zumarte Musika Eskolak. Kontzertua egunotan Covid19ak Usurbilen izandako eraginagatik, eta kalejira eguraldiagatik. Kalejira giro hobearrekin aurrerago ospatzekotan dira.

## Santueneko arratsalde musikatuak, atzeratua

Azaroaren 26rako DJ Gorka Mendirekin iragarria zuen arratsalde pasa bertan behera uztea erabaki zuen Santuenea Kultur Elkarteak eguraldiagatik. Aurrerago zehaztuko dute data berria.

# Aztarrika Gazte Asanblada: “Gure proiektuak aurrera eramateko espazio bat behar dugu”

Osasun krisialdiagatik larunbatean ospatzekoa zuten Gazte Eguna atzeratu eta frontoian mobilizatu zen Aztarrika Gazte Asanblada “oraina guria denk!” aldarripean. Gazteen egoerak pandemia honetan okerrera egin duela salatu zuten, gazteak topagune baten beharrean direla aldarrikatzearekin batera.



Gazte Eguna atzeratu eta frontoian mobilizatu ziren aurreko astean, “Oraina gurea denk!” aldarripean.

**NOAUA! Zergatik atzeratu duzue Gazte Eguna?**

**Aztarrika Gazte Asanblada:** Hilabete batzuk atzeratzea erabaki dugu. Kultur ekimenei bultzada emateaz gain, herriko gazteen arteko harremantzea, ilusioa berpiztea nahi genuen. Agian ahalko genuke neurriak egokitu eta beste modu bateko Gazte Egun bat antolatu baina aproposagoa iruditu zaigu hilabete batzuk atzeratzea.

**Larunbatean mobilizatu zineten frontoian, “Oraina guria denk!” aldarripean. Zer helbururekin?**

Duela urtebete ere formatu berdinean egokitu genuen Gazte Eguna, hausnarketarako eta

## AZTARRIKA

**“Neurriak egokitu genitzakeen, baina aproposagoa iruditu zaigu Gazte Eguna atzeratzea”**

kritikarako. Pandemia aurretik baina bereziki pandemian bizi dugun egoera salatzen duen Gazte Eguna antolatu genuen. Urtebete pasa da eta esparru guztietan okerrera goaz. Buruko osasunaren gaia batez ere asko aipatzen da gure artean. Bestalde, denbora honetan kriminalizazio handia jasan dugu eta gazteok ez dugula arduratsu

jokatzen. Beste behin erakutsi dugu egoera honen aurrean, dena prest genuenean, guretzat hain garrantzitsua zen Gazte Eguna atzeratzeko erabakia hartu dugula. Ahal den heinean saiatzen garela arduratsu jokatzeko.

**Iazko Gazte Egunean hausnarketak saio bat ere egin zuten. Zer ateratu zen eta ordutik zer aldatu da?**

Saioetako bat izan zen pandemiak Usurbilgo gazteongan zer ondorio utzi dituen, herriko gazteek betetako inkestari buruzkoa izan zen. Osasun mentalarena, asko hitz egin

den gaia izan da gazteen artean. Harremantzeko eta zure aukerak eta zure beharrik asetzeko iturri guztia moztzen badizute ez dago bizi irauteirik. Bigarren saioa gazteak eta espazioaren inguruko hausnarketak bat izan zen. Pandemiak ekarri duena da, gauza guztiak oso kontrolpean egin behar hori, dena erakundeetatik eta modu formal batean egin beharra. Zentzu batean bai egin behar direla, baina autogestiorako eta lehen gutxi bazeuden, gure kabuz antolatzen espazioak guztiz kendu dira. Gure proiektuak aurrera eramateko gure espazio bat behar dugu.

## “Kalea gurea da eta hori defendatuko dugu”

**NOAUA! Azken urtean hainbat saio egin dituzue gazte txearen inguruan. Gune autogestionatuaren egitasmoa zertan da?**

**Aztarrika Gazte Asanblada:** Hausnarketan ibili gara, orain gaztetxe baten bila ari gara. Aukera batzuekin bueltaka gabiltza. Iazko Gazte Eguneko hausnarketa saioetako ondorio nagusietako bat izan zen gaztetxe baten beharra genuela, gazteen arteko topagune bat. Hausnarketa horretan, hasieran korapilo nagusia izan zen zehaztea nortzuk garen

eta zeintzuk goaz gaztetxearen bila. Korapilo hori askatu dugu eta talde motorra Aztarrika gazte asanblada izango dela. Herri irratzen saiatu eta beste herri eragileekin hartuemanetan izan gara. Nahi duen orok proiektu honetan parte hartzea da gure ideia. Egitasmoari forma ematen aritu gara aurten. Orain bai, espazio baten bila gabiltza. Gaztetxea hartzen badugu herriarentzako tresna bat izango dela argi dugu. Gaztetxea izan aurretik herrian, kalean segiko dugu ekimenak egiten eta gure beharrik plazaratzen, espazio

propioa lortu arte.

**Pandemiak urrundu digun kalea berreskuratzea ere erronka bat izango da.**

Larunbateko mobilizazioa horitik zihoan, oraina kalea da. Kalea gurea da eta gurea izango da, hori defendatuko dugu. Erakutsi dugu badakigula dugun egoera jasanezin honetan eta gaztetxearekin urtebete borrokan ibili eta oraindik espazioa izan gabe hotzean gauzak egiten eta erakusten Gazte Eguna atzeratuz gauzak ondo egiten ditugula.

Mobilizazio horrekin ere salatu nahi genuen iaz jardun berean ari ginela, orduko Gazte Eguneko neurriak moldatu nahian, bilera batean ginela txibatazo bat izan zela. Ez dakigu zer pentsatuko zuten, festa antolatzen ari ginela edo. Baina hau antolatzen ari ginen biltzen. Gu ginenak baino 10 ertzain gehiago etorri eta isun handia jarri ziguten. Ezker Abertzaleak eta bereziki Sortuk babes handia eman zigun une horretan jasan genuenagatik.

# “Euskara lanabes, aro berrirantz”

A te joka dugun abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunari begira, mozioa onartu zuen udalbatzak aho batez azaroaren 25eko osoko bilkuran.

Aurtengoan, “euskararen bi-zi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronka” aipatzen du testuak. Aisialdi, lan mundu, kultur edota kirol eremuak nabarmentzen ditu. “Hor aurrera egiteko, hitzunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarritz eta eredugarritasuna erakutsiz”.

Eta pandemia ostera begira ere jartzen da adierazpena; “aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garene eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako



Eli Pagola eta Agin Laburu bertsoariak jarriko dituzten elkarriketarako hizpidea abenduaren 3ko Hikodromoan.

## UDALBATZA

**“Aurrera egiteko, hitzunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituzioon ahalegina: bitartekoak jarritz eta eredugarritasuna erakutsiz”**

euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago”.

## “Hikastearen” azken txanpa

Hitanoaren erabilera sustatzeko Euskararen Egunaren bultzatzen antolatutako den zikloa hitzorduarekin borobilduko dute:

### Abenduak 2, osteguna

■ 18:00 TikTok eta Instagram lehiaketa, sari banaketa Sutegin.

### Abenduak 3, ostirala

■ 18:00 Hikodromoan Dema

plazan. Euria ariko balu, Askatasuna plazan. “Hika ari-tzeko espazioa izango da. Hika menperatzen dutenak, hika hasiak direnak zein egin nahi dutenak bildu nahi ditugu. Parte-hartzaileak binaka jarriko ditugu, eta bikoteak lau minutuan behin aldatuko ditugu. Trantsizio horiek bertso eta musikaz girotuko ditugu; izan ere, Eli Pagola eta Agin Laburu bertsoariak jarriko dituzten elkarriketarako hizpidea Antton Aranburu eta Gari Otamendiren musika lagun. Jan-edanerako atsedenen ostean, arratsaldea biribiltzeko emanaldia izango dugu”.

■ 19:30 Esti eta Mikel Markezzen kontzertu akustikoa Dema plazan. Euria ariko balu, Askatasuna plazan.

■ Izen ematea: usurbilkultura.eus plataforma.

■ Antolatzaileak: Usurbilgo Euskara Taldea, NOAUA!, Usurbilgo Udala.

## Bardozeko ikastola berria ezagutarazteko ekitaldiak

Bardoze Lapurdiko ipar ekialdean kokatzen den herri bat da. Orain arte bertako umeak Beskoitzeko Ikastolara joan behar izaten zuten. Pasa den urtean bi familia euskaldunek abiatutako kanpainaren ostean, guraso eta beraz ume gehiago Bardozeko ikastolaren proiektura atxikitzea lortu zen. Seaskaren laguntzarekin aurkeztutako egitasmoak herriko etxearen oniritzia jaso eta gero jarri zen martxan ikastola 2020ko irailean. Horrela Lapurdiko Xarnegu eskualdean ere hasi da ibiltzen lehen ikastola.

Proiektuarekin aurrera jarraitzeko lanean dihardute.



Bardozeko ikastolako atea 2020ko irailean zabaldu zirenean.

Norabide horretan Usurbil bisitatuko dute abenduaren 12an. Udarregiko ikastolako kideekin elkartzeko eta Usurbilgo proiektua ezagutzeko gain, berriena ere aurkeztu eta haus-

narketak elkarbanatzeko. Hau guztia giro alaian egin nahi da, abenduaren 12an Mikel Laboa plazatik abiatuko den kalejira baten bidez. Beraz animatu eta babestu Bardozeko Ikastola.

### Abenduak 12 igandea

■ 11:00etan Udarregiko Ikastolara bixita.

■ 12:00etan Mikel Laboa plazatik kalejiraren hasiera (Bardozeko txistulariak, gurasoak eta haurrak; eta hauekin batera Usurbilgo dantzari, musikari eta herritarrek).

### Zuberoaren aldeko otarrak

3 otar dituzue aukeran:

■ Ahüzki (40 euro).

■ Irati (55 euro).

■ Orhi (70 euro).

### Informazio gehiagorako:

■ ikaskoli.eus

■ NOAUAn ere eska daitezke.

## Urbil eta Gurutze Gorria elkarlanean, jostailuak haur guztiengana iritsi daitezzen

Gabonetan haur guztiek jostailuak izateko aukerarik izango ez dutela ikusita, Urbilek esku-ragarri jarriko ditu jostailuak egoera ahulean dauden familietako haurrentzat. Kanpainak Urbil merkataritza-gunean izango du bilketa-puntua, eta Gurutze Gorria arduratuko da jostailuak zaurgarrienen artean banatzeaz.

Ekimen honen helburua Eguberri hauetan Gipuzkoako familia behartsuetako haurrei jostailu bat ematea da, zaurgarritasun sozial eta ekonomikoa izateko arriskuan baitaude, eta ondorioz, ezin dituzte jostailuak eta jolasak erosi. “Jostailu hezitzailea” proiektua, “bere eskubideak jokoan” lelopean kanpainaren helburua jostailu berriak biltzea da: ez belikoak eta ez sexistak. Hezkuntzan eragin eta balioak transmititzeko tresna egokiak ematea da helburua.

Urbilek eta Gurutze Gorriak



Urbilek eta Gurutze Gorriak jostailuak biltzeko gune bat jarri dute Eroski hipermerkatuko kutxen parean.

### JOSTAILUEN BANAKETA “Gurutze Gorria arduratuko da jostailuak banatzeaz”

jostailuak biltzeko gune bat jarri dute martxan 2021eko azaroaren 20tik 2022ko urtarrilaren 5era bitartean, Eroski hipermerkatuko kutxen parean. Behin kanpaina amaituta, Gurutze Gorria arduratuko

da jostailuak banatzeaz; Gipuzkoako 1.809 umerengana iristea espero dute.

#### Konpromisoa

Urbilen egiten den ekintza berri honek indartu egiten du desberdintasunak murrizteko eta kalitatezko hezkuntza emateko konpromisoa, NBE-ren Garapen Jasangarriko 17 Helburuetan (GIH) oinarritutako Jatorria jasangarritasun-proiektuan.

## Auzoa aztertzeke txangoak Santuenean

Diagnostiko fase betean murgilduta dago Santueneko partehartze prozesua. Santuenea Elkarlanean talde eragilea Auzo Planaren definizioa dinamizatzen ari da, eta galdetegien ostean, beste ariketa praktikoa bat proposatu nahi diete auzotarrei: auzo txangoak abenduaren 2an eta 11n.

Auzoa aztertzeke bi txango egingo dituzte: galdetegian aipatutako gaietan sakonduz, auzoaren azterketa zehatzago bat egitea da asmoa. Lehena abenduaren 2an izango da, ostegun-egun, 18:00etatik aurrera; bigarrena, berriz, abenduaren 11n,



Abenduaren 2an eta 11n egingo dira auzoaren inguruko irteerak.

larunbatez, 10:00etatik aurrera. Bi ordu inguruko iraupena izango du txango bakoitzak.

Txango horien bidez Santueneako kale eta txokoak begirada analitikoaz aztertu nahi dituzte. Ordu desberdinetan jarri

dituzte hitzorduak, egun argiz zein iluntzean egindako ekarpenak jasoko dituztelakoan. Auzoaren aukerak, gabeziak eta puntu kritikoak identifikatzea da helburua, diagnostikoko borobilago bat lortze aldera.

## Marsel magoaren emanaldia abenduaren 16an egingo da

Osasun krisialdiagatik “Udazkena Liburutegian” zikloaren baitan Usurbilgo Udalak azaroaren 24an antolatua zuen “MagiaZ: Magia eta Zientzia uztartuz” emanaldia atzeratzea erabaki zuten. Abenduaren 16rako iragarri dute arratsaldeko 18:00etan Sutegin. Emanaldirako izena hilaren 14ra arte bideratu ahalko da usurbilkultura.eus plataforman.

## Abenduaren 11n, turismo eredu berriaren aurkezpena

Usurbilgo Udalaren eskariz, udalerrir honetarako turismo eredu propioa garatzeko proiektua landu du Jon Maia bertsolariak. Orain arte egindako lanketaren emaitza aurkeztuko dute abenduaren 11n larunbata, 12:00etan Sutegiko auditorioan. Ekitaldirako izena aurrez bideratu ahalko da usurbilkultura.eus plataforman bidez. Egitasmorako 40 saio inguru egin ditu Maiak hainbat herri eragilerek. Usurbilgo sorreraren 650. urtemugarekin lotura estua du. “650 urte eta gero, herri hau horrelakoa da: nolakoa izatea nahi dugu aurrerantzean?”.

#### Usurbilen neurria egindako plana

Onuradunak herritarrak eta herria bera izatea da, “Usurbilen neurria egindako planaren helburuetako bat”. Turismo eredu propioa eta Usurbilen biziberritzerako oinarriak ezarri nahi ditu Udalak.



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

**Alokairuan**

San Esteban kalean (Etxealdia) 31m<sup>2</sup>ko lokal bat alokairuan. Masajeak emateko edo estetikazko zerbitzuak emateko prestatuta dago. 655735715.

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentea da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Usurbilen pisu konpartitu batean logela bat alokatzen da mutil edo neska batentzat. Bila bazabiltza deitu 618032966

Neska kaudimenduna, masakak onartzen dituen etxe-

bizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonezko bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Ezinduentsako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar da Artzabal-

en, barra, eguneko menua eta kartarako. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. Interesatuok hona deitu: 943 36 91 39.

Olarrondo jatetxean zerbitzaria behar dute astebukaerarako. Eguerdian lan egiteko. 626 686 036.

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izatea baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko pertsona bat behar dugu, txandaka, goiz eta arratsalde. Hilabetean 15 ordu. Euskalduna izatea. 666 925 378 (Esti).

Adinekoak eta haurrak zaintzak edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingeleseko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonezko bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest,

neska bat naiz. 622747833.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egina dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604349970.

**BESTELAKOAK**

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzkagu salgai. 6/7 hilabetetako 5 txerrikume ere bai. Interesetzen bazaizu deitu 607 668 603 (Joxe Cruz)

Ingelesezko, frantsesezko eta latineko klaseak ematen ditut etxera joanda. 600766068.

Filologia ikasketak ditut, ingelesezko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko deitu hona 660845780 edo idatzi email bat hona: [bouchrahajar@outlook.com](mailto:bouchrahajar@outlook.com)

**Espainiako pilota egokituko finalera**

Lehen edizioako kanporaketak jokatu ziren azaroaren 28an Derion (Bizkaia). Finalera begira da txapelketa eta azken saio honetara sailkatu dira Pagazpe Elkarteko hiru pilotari; Beñat Lizaso, Aingeru Semperena eta Mikel Merino. Asier Navaridasekin batera, laukote honen artean ospatuko da finala abenduaren 12an Iruñeko Labrit pilotalekuan, eguerdiko 12:00etan hasita. Navaridas eta Lizaso, Semperena eta Merinoren aurka lehia-tuko dira.

**Goardiako farmaziak**

<b>Osteguna 02</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
<b>Ostirala 03</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
<b>Larunbata 04</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Igandea 05</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Astelehena 06</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
<b>Asteartea 07</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
<b>Asteazkena 08</b>	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.

**Pilota partidak****Usurbilgo frontoian**

**Abenduak 3, ostirala**

**17:15 Usurbilgo frontoian:**

**Alebin 2. Maila:**

Manterola (Pagazpe)

Pazon (Orio)

**Infantil 2. Maila:**

Alejo (Pagazpe)

Izagirre (Gazteleku)

**Eskubaloit partidarik****ez asteburu honetan**

Asteburu honetan ez dago partidarik.

**Errifa zozketa**

Bestalde, errifa saridunaren zenbakia 0176 izan da. Guria tabernan bi pertsonentzat bazkaria edo afaria.

**Heriotzak**

**Josefina**

**Atxega**

**Beloki**

Azaroaren

28an hil zen

77 urterekin.



# Agenda abendua

## 02 osteguna

- **Hikastea: TikTok eta Instagram bidezko lehiaketaren sari banaketa**, 18:00 Sute-giko auditorioan.
- **Santuenea aztertze txangoa**, 18:00-20:00. Antolatzailea: Santuenea Elkarlanean.

## 03 ostirala

- **Hikastea: Hikodromoa** 18:00 Dema plazan. Eli Pagola eta Agin Laburu bertsolariak, Antton Aranburu eta Gari Otamendi musikariak.
- **Esti eta Mikel Markezzen kontzertua** 19:30 Dema plazan.

## 05 igandea

- **Euskarazko film proiektzioa: Zutik!** 17:00 Sute-giko auditorioan. Sarrera: 3 euro, usurbilkultura.eus plataforman salgai.

## Igande honetan Sute-gin, 'Zutik!' gaztetxoentzako euskarazko filma

**E**txeko txikientzako euskarazko zine zikloaren itzulera iragarri dute Usurbilgo Udalak eta Zior-tza Gazte Elkartekoek. Lehen proiektzioa igande honetan, abenduaren 5ean, Sute-gin. "Zutik!" filma eskainiko dute 17:00etatik aurrera.

"Zer gertatzen da hiriko zuhaitzekin? Orain arriskuan daude. Zuhaitzak bota nahi dituzte eta, horiekin batera, bertan bizi diren iratxoak ere desagertu egingo dira. Laguntzeko modu bakarra dago. Zutik eustea".

### Abenduak 5 igandea

- 17:00etan, Sute-gin.
- Filmerako sarrera 3 euroren truke au-



Film proiektzioa 17:00etan hasiko da. Sarrerak aurretik eskuratu behar dira.

rez eskuratu ahalko da usurbilkultura.eus plataforma bidez.

- Aforoa: 93 lagunentzako tokia.
- Antolatzaileak: Udala eta Ziortza.

## Azoka eta elkartasun bazarra Santuenean

### Abenduak 11 larunbata:

- 16:00 Gabonetako azoka txikia eta bazar solidarioa, Gure Elkartea eta auzo elkarte parean. Postuotan auzoko dendariak produktuak plazaratu nahiz auzoko edota herriko artisauen eskulanak jartzeko aukera egongo da. Gaztainak, parrilla... egongo dira. Bazar solidarioa ere

bai, liburu, arropa edota jostailuekin. Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkartea.

### Abenduak 18 larunbata

- 18:30 Gabonetako zuhaitza piztea, Dj Mendiren gabonetako musikarekin.

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkartea.

### Datozenak

#### Covid-19ak hildakoak gogoan

Abenduaren 12an igandea, eguerdiko 13:00ean Bizkarreko parkean. "Udalak Covid19aren ondorioz gertutako bat galdu duten herritarrei doluminak helarazi nahi dizkie, eta, horregatik, gaixotasun horrek hildako herritarrak gogoratzeko leku iraunkorra egokituko du Bizkarreko parkean".

#### Joseba Irazoki eta lagunaren kontzertua

Haraneko musikariek antolatuta, abenduaren 12an igandea iluntzeko 19:00etan Sute-gin. "Berako taldea '3' azken diskoa aurkeztera dator, era anitzean ulertutako rock moldeko kantu eta soinu bereziak eskainiz". Sarrerak 10 eurotan, kontzertu egunean eta Sute-gin bertan eskuragarri.

#### "Album" antzezlanaren eta txokolate jana Askatasuna plazan

Hitz Aho guraso elkartearen eta Usurbilgo Udalaren eskutik, txokolate-jana abenduaren 19an 17:00etan Askatasuna plazan. Eta segidan, 18:00etan Formol Laborategia konpainiakoen "Album" antzezlanaren Sute-gin. 5 euroren truke eskuratu ahalko da sarrera usurbilkultura.eus plataforma bidez.

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA • ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**ERAMATEKO!!!**  
-EGUNEKO MENUA  
-KARTA  
**ARTZABAL** (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)  
BASERRIA • JATETXEA  
www.artzabaljatetxea.com **943 36 91 39**

**GAR**  
**GRUPO MONROY**  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
943 53 72 38  
628 45 78 39 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com  
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Izan  
bizi  
erosi,  
euskaraz.

Hemen ere  
Euskaraz

# Elkarrekin euskaraz.

Urbilen aktiboki  
sustatzen dugu gure  
hizkuntzaren erabilera.

